



## AKTEA/31

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2024-10-15)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-10-15 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:02
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:11
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Datea: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-10-08 TGB (30)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Zubiaur tar Kepa 53-55 zenbakian kokatuta dagoen eraikuntzaren erreparazio lanen obra-lizentzia eskaria onartzea.
- 4.- Intxausti kalea 6 eraikineko fatxada nagusia eta albokoa birgaitzeko obra lizentzia ematea onartzea.
- 5.- Azokako 19-20 postu finkoen emakida bertan behera uzteko eskaria onartzea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 7.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-10-08 TGB (30)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko urriaren 8ko 30/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.



### 3.- ZUBIAUR TAR KEPA 53-55 ZENBAKIAN KOKATUTA DAGOEN ERAIKUNTZAREN ERREPARAZIO LANEN OBRA-LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

Momentu honetan Maite Caruezo batzar gelara sartu da.

#### Xedea

Zubiaur tar Kepa 53-55 kaleko eraikuntzaren erreparazio lanak.

#### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko apirilaren 10ean, 14.941.666-S NAN zenbakidunak, Zubiaur tar Kepa kalea 53-55eko jabeakideen erkidegoaren izenean, obra-lizentzia eskatu du Zubiaur tar Kepa 53-55eko eraikina konpontzeko (20244995 sarrera-zenbakia).

Bestalde, aldi berean aurkeztu zen EHAEOn ikus-onetsitako egikaritze-proiektua, Pablo Basterrechea Astorkiza, Joseba Andoni Apraiz Ormaza eta Deñe Elixabete Uriarte Ormaeche arkitektoek sinatuta (2024ko apirilaren 10eko eskaera eta 20244995 sarrera-zenbakia).

Bigarrena.- 2024ko apirilaren 23an Bermeoko Udaleko arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2024ko apirilaren 26n Bermeoko Udaleko diruzainak eskatutako fidantzen gordailu adierazpena egin zuen.

Laugarrena.- 2024ko apirilaren 26an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2024ko urriaren 2an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena igorri zuen.

#### Argudioak

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, Zubiaur tar Kepa 53-55 zenbakiaren jabe elkartearen eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.- Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra



lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko irailaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Bermeoko Zubiaur tar Kepa 53-55 zenbakian kokatuta dagoen eraikuntzaren erreparazio lanak egikaritzeko obra-lizentzia **EMATEA**, 14.941.666-S NAN zenbakidunak 2024ko apirilaren 10ean, Zubiaur tar Kepa kalea 53-55eko jabekideen erkidegoaren izenean, aurkeztutako proiektuaren arabera.

**BIGARRENA:** Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean azertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.
- Eraikuntzaren kode teknikoaren, EKT aldatzen duen 732/2019 Dekretuan xedatutakoa beteko da, baita bere oinarriko dokumentuek zehazten dutena ere. (DB-SUA, DB-SE, DB-SI, DB-HS, DB-HE, DB-HR).
- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

Lizentzia emateko erabili den proiektuan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta baldintza honetaz gain, obra egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazen baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazten da baimen hau ez dela eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren



bitartean.

Bestalde, era berean, 2024ko irailaren 23ko Udal arkitektoaren txostena atxikitzen da ebazpen honi.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiazko dekien egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispén materialen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkartzak abalatura.

**LAUGARRENA:** Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gaintzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

**BOSGARRENA:** Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenentarako eta egiaztapenentarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

**SEIGARRENA:** Obraren aurrekontua 262.485,89€koa da (exekuzio materialaren kostua kontuan hartuta). Obrak gehienez ere sei (6) hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru (3) hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei (6) hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

**ZAZPIGARRENA:** Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonen kalterik ez egiteko.

**ZORTZIGARRENA:** Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

**BEDERATZIGARRENA:** Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

**HAMARGARRENA:** Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eskusibopean.

**HAMAIKAGARRENA:** Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren



artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

**HAMABIGARRENA:** Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributua likidatzeko.

**HAMAHIRUGARRENA:** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak direnerrekurtsoak adieraziz.

### OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagozkion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu teknikoa, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan...

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

- a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.
- b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebeharrak hori.
- c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu nariagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.
- d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.
- e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.
- f) Indarrean dagoan legediak esijitutako generako betebeharrak betetera.
- g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikulua xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikulua xedatzen dauenaren arabera.
- h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 2024116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen den zementuzko kareshedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.
- j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezker, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.
- k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatiboan burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzioa. Kontrastestek izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraungiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:

- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezker udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezker, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.





15.- Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak... euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezker, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidadetik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:

- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajejan, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.
- 100 metro koadru bakoitzeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.
- Oinaren okupazioa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurrekusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.
- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loia eta beste establezimendu enparaduetako atek kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.
- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.
- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo atek barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.
- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.
- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizitatea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.
- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazio eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakoitzaren araudia kontuan izateko eta instalazioak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.
- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:
  - CTE
  - CTE-DB-SI
  - CTE-DB-SE
  - CTE-DB-SUA
  - CTE-DB-HS
  - CTE-DB-HE
  - CTE-DB-HR
- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazioetako azpiegitura komuntentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.
- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazioa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.
- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazioen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.
- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako data, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.
- Obra hondakinak eta lurak mobitea.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako "Prevención de Riesgos Laborales" Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legetzatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzearen (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazio bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazio honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guiz hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 58. artikulua eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikulua xedatutakoaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia



## HIZTEGITXOA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa	Recurso Contencioso-Administrativo
Aireztatze-hodiak	Conductos de ventilación
Aireztatze-tximinia	Chimenea de ventilación
Arau subsidiarioak	Normas subsidiarias
Araudia	Normativa
Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala	Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia
Azpiegiturea	Infraestructura
Baldintzea	Condición
Bizigarritasun-zedulea	Cédula de habitabilidad
Epemugea	Vencimiento
Eraikina	Edificio
Erantzukizuna	Responsabilidad
Esan-multzoa	Párrafo
Eskegitokia	Tendedero
Harri-zolea	Empedrado
Ildo ofizialak	Líneas oficiales
Iraungi	Caducar
Jabeen erkidegoa	Comunidad de propietarios
Kitapena	Liquidación
Legegintzako Errege-Dekretua	Real Decreto Legislativo
Lerrokadurea	Alineación
Loiea	Lonja
Meategia	Mina
Objektu narriagarria	Objeto que puede deteriorarse
Obra-hondakindegia	Escombrera
Oholtzea	Tablado
Oina	Planta
Onuraduna	Beneficiado
Orubea	Solar
Oztopo arkitektonikoak	Trabas arquitectónicas
Salbuetsita	Exento
Sarbidea	Acceso
Trenkadea	Mampara, tabique
Urbidea	Conducción de agua
Urigintzea	Urbanismo
Zergea	Impuesto
Zigilua	Sello
Zuinketa Aktea	Acta de Replanteo

#### 4.- INTXAUSTI KALEA 6 ERAIKINEKO FATXADA NAGUSIA ETA ALBOKOA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA ONARTZEA.

##### Xedea

Bermeoko Intxausti kalea 6. zenbakian dagoen eraikineko fatxada nagusia eta albokoa birgaitzeko beharrezkoak diren obrak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

##### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80011082A00K6L9O4N6C5W6



## Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko maiatzaren 2an 72.311.544-G NAN zenbakidunak, Bermeoko Intxausti kalea 6. zenbakiko jabekideen erkidegoaren ordezkari gisa, obra-lizentzia eskatu zuen, eraikineko fatxada nagusia eta albokoa birgaitzeko xedearekin (20246271 sarrera zenbakia).

Bigarrena.- 2024ko irailaren 30ean Bermeoko Udaleko arkitektoak txosten teknikoa egin zuen.

Hirugarrena.- 2024ko urriaren 3an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2024ko urriaren 3an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena igorri zuen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, Zubiaur tar Kepa 53-55 zenbakiaren jabe elkartearen eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.- Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena Alkatearena da, baina eskumen hori 2024ko irailaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA: Bermeoko Intxausti kalea 6. zenbakian dagoen eraikineko fatxada nagusia eta albokoa birgaitzeko beharrezkoak diren obrak egiteko obra-lizentzia **EMATEA** onartzea, 72.311.544-G NAN zenbakidunak, 2024ko maiatzaren 2an, Bermeoko Intxausti kalea 6. zenbakiko jabekideen erkidegoaren izenean, aurkeztutako proiektuaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:



- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Urigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du. Fidantza hori jada gordailatuta dago 2024ko urriaren 1ean, espedientean ikusi daitekeen bezala.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Bermeoko HAPOaren IV. tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.
- Eraikuntzaren kode teknikoaren, EKT aldatzen duen 732/2019 Dekretuan xedatutakoa beteko da, baita bere oinarriko dokumentuek zehazten dutena ere. (DB-SUA, DB-SE, DB-SI, DB-HS, DB-HE, DB-HR).
- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
- Aldamua Intxausti kalean jartzen denez, gutxienez 3 metroko pasabide librea utzi beharko da.
- Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.
- Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.
  - Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldeztu aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio, eta gorabehera horien erantzuletzat joko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202  
Data: 16/10/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.
- Lizenziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea izango da; udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.
  - Lizenziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
  - Lizenziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizenzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.
  - Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Lizenzia emateko erabili den proiektuan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta baldintza honetaz gain, obra egiteko lizenzia eraginkorra izateko, lizenzia honeri erantsita doazen baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazten da baimen hau ez dela eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diren bitartean.

Bestalde, era berean, 2024ko irailaren 30eko udal arkitektoaren txostena atxikitzen da ebazpen honi.

**HIRUGARRENA:** Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiazko dekien egokiera eta Udalaren zuzenketa



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



neurrien gauzatzea.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organismoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalaturia.

**LAUGARRENA:** Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

**BOSGARRENA:** Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenatarako eta egiaztapenatarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

**SEIGARRENA:** Obraren aurrekontua 57.129,50 €koa da (exekuzio materialaren kostua kontuan hartuta). Obrak gehienez ere sei (6) hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru (3) hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei (6) hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia irautzitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

**ZAZPIGARRENA:** Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsonen kalterik ez egiteko.

**ZORTZIGARRENA:** Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

**BEDERATZIGARRENA:** Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean. Kasu honetan, adierazi beharrekoa da 1.000,00€ko fidantza obragaitik urbanizazioan sor daitezkeen kalteengaitik.

**HAMARGARRENA:** Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eskusibopean.

**HAMAIKAGARRENA:** Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

**HAMABIGARRENA:** Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuek likidatzeko.

**HAMAHIRUGARRENA:** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak direnerrekurtsoak adieraziz.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202  
Data: 16/10/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia





## OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakak batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu tekniko, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan...

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

- a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.
- b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebeharrak hori.
- c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.
- d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.
- e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.
- f) Indarrean dagoan legediak esijitutako generako betebeharrak betetera.
- g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikulua xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikulua xedatzen dauenaren arabera.
- h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.
- i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko kareshedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.
- j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezker, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.
- k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.

5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatiboan burutuko dira obrak; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokon alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obren sekzinoari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria



izendatuko dau eta sekzinoari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraindino bete ez badau, Obra Sekzinoak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obreak irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokon baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obrak ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.-Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegaz batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzoan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obrak egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzioa. Kontrasteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraugiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:

- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obrak amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkeru udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkeru, ez da kontuan hartuko epemugarik.

13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gitxitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharrak, segurtasun arauen panelak... euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkeru, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidadetik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajejan, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.
  - 100 metro koadru bakoitzeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzen aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.
  - Oinaren okupazioa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzoan azaldutako baldintzetan.
  - CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loa eta beste establezimendu enparaduetako ateak kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.
  - Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.
  - Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerera eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo ateak barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.
  - Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.
  - Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizitatea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.
  - Obregaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazio eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakoitzaren araudia kontuan izateko eta instalazioak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.
  - Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:
    - CTE
    - CTE-DB-SI
    - CTE-DB-SE
    - CTE-DB-SUA
    - CTE-DB-HS
    - CTE-DB-HE
    - CTE-DB-HR
  - Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.
- Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.
- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazioetako azpiegitura komuntentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.
  - Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazioa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataririk eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

## Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Data: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E80011082A00K6L9O4N6C5W6



- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazioen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.
- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako dataa, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.
- Obra hondakinak eta lurak mobitea.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako "Prevención de Riesgos Laborales" Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurak mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurak bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazio bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazio honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guuzti hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 58. artikulua eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



## HIZTEGITXOA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa	Recurso Contencioso-Administrativo
Aireztatze-hodiak	Conductos de ventilación
Aireztatze-tximinia	Chimenea de ventilación
Arau subsidiarioak	Normas subsidiarias
Araudia	Normativa
Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala	Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia
Azpiegiturea	Infraestructura
Baldintzea	Condición
Bizigarritasun-zedulea	Cédula de habitabilidad
Epemugea	Vencimiento
Eraikina	Edificio
Erantzukizuna	Responsabilidad
Esan-multzoa	Párrafo
Eskegitokia	Tendedero
Harri-zolea	Empedrado
Ildo ofizialak	Líneas oficiales
Iraungi	Caducar
Jabeen erkidegoa	Comunidad de propietarios
Kitapena	Liquidación
Legegintzako Errege-Dekretua	Real Decreto Legislativo
Lerrokadurea	Alineación
Loiea	Lonja
Meategia	Mina
Objektu narriagarria	Objeto que puede deteriorarse
Obra-hondakindegia	Escombrera
Oholtzea	Tablado
Oina	Planta
Onuraduna	Beneficiado
Orubea	Solar
Oztopo arkitektonikoak	Trabas arquitectónicas
Salbuetsita	Exento
Sarbidea	Acceso
Trenkadea	Mampara, tabique
Urbidea	Conducción de agua
Urigintzea	Urbanismo
Zergea	Impuesto
Zigilua	Sello
Zuinketa Aktea	Acta de Replanteo

## 5.- AZOKAKO 19-20 POSTU FINKOEN EMAKIDA BERTAN BEHERA UZTEKO ESKARIA ONARTZEA

## Xedea

Azokako 19-20 postu finkoen emakida bertan behera uztea.

## Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

## Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeo

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



**Lehenengoa:** 2024ko irailaren 5ean 14.607.277-T NAN zenbakidunak, Gil Alegria C.B (E95306114) enpresaren izenean, udal azokako 19-20 postuen emakida bertan behera uzteko eskaera aurkeztu du (2024/12857 zenbakidun sarrera erregistroa). Azken eguna irailaren 30 izango da.

**Bigarrena:** 2024ko irailaren 23an Bermeoko Udaleko Zerbitzu Saileko teknikariak txostena egin du, non hurrengoa adierazten da: *"Eskaera 2024ko irailaren 5ean egin zen heinean, 18bis artikulua 4. kasuan egongo litzateke. Beraz, udalaren aldetik, bere egunean ordaindutako laugarren zatiaren konpentsazioa hartu beharko luke, hau da, 3.651,15 €."*

**Hirugarrena:** 2024ko urriaren 1ean, postu finkoko giltzak bueltatu dituzte.

**Laugarrena:** 2024ko urriaren 2an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitekto teknikoak aldeko txostena egin du.

### Argudioak

**Lehenengoa:** 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez onartutako delegazioen ondorioz, ondarearen emakida espedienteen bajak onartzea, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

**Bigarrena:** 19-20 postu finkoetako argindarra udalaren izenean jartzea komenigarria ikusten da.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** 2024ko irailaren 5ean 14.607.277-T NAN zenbakidunak, Gil Alegria C.B (E95306114) enpresaren izenean, udal azokako 19-20 postuen emakida bertan behera uzteko eskaera onartzea. Azken eguna irailaren 30 izango da.

**BIGARRENA:** Uraren baja interesdunak berak egitea.

**HIRUGARRENA:** Argiaren titularidade aldaketa dagokion Sailak egitea.

**LAUGARRENA:** 2024ko irailaren 23an Bermeoko Udaleko Zerbitzu Saileko teknikariak egindako txostenaren arabera, 3.651,15 € bueltatzea.

**BOSGARRENA:** Erabakia interesdunari jakinaraztea.

**SEIGARRENA:** Zerbitzu Sailari, Kontabilidade, Diruzaintza, Errenta Sailari eta Idazkaritza Sailari



erabagiaren barri emotea dagozkion ondorioetarako.

ZAZPIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

## 6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 7.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzaileak eta datak*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E80011082A00K6L9O4N6C5W6

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
16/10/2024

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/10/2024

DOCUMENTO: 20241116202

Fecha: 16/10/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

